

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2024KO IRAILAREN 3KO EZOHIKO BILERAREN AKTA

2024ko irailaren 3an, 12:15ean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Alexander Fleming aretoan (Araba kalea 45, Vitoria-Gasteiz), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kontseiluburuak deituta, honako kide hauek bildu dira: **Alberto Martínez Ruiz jauna**, Osasuneko sailburua, kontseiluburua; **Enrique Peiró Callizo jauna**, Osasuneko sailburuordea, **Miren Lorea Bilbao Artetxe andrea**, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea; **José Enrique Corchón Álvarez jauna**, Eusko Jaurlaritzako Finantza eta Aurrekontu sailburuordea eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna**, Aurrekontuen zuzendaria.

Kontseiluburuak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak –Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, **bertaratuek osoko bilkura eratu dute**, kontseiluburuak deitutako bilkura egiteko eta aldeztatik bidalita zegoen gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseilu honetara joan dira, kontseiluburuaren baimenarekin, ente publikoko zuzendari nagusi **Susana López Altuna andrea**, eta ente publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, **Maiteder Mielgo Rubio andrea** (idazkari gisa).

GAI-ZERRENDA

LEHENENGOA. – 2024ko irailaren 3ko bileraren akta irakurri eta onestea, hala badagokio.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onartzen dute 2024ko irailaren 3an egindako bileraren akta.

BIGARRENA. - Finantza eta Aurrekontuetako sailburuorde berria Administrazio Kontseiluko kide gisa izendatzea.

José Enrique Corchón Álvarez, Finantza eta Aurrekontu sailburuordea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluko hirugarren kide izendatu behar da.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

HIRUGARRENA. - Administrazio Kontseiluaren osaera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren kideak partzialki aldatu dira. Kide guztiak bertan zeudenez, karguak onartu dira eta Ente Publikoaren Administrazio Kontseilua formalki eratu da, osaera honekin:

Kontseiluburua: Alberto Martínez Ruiz jauna, Osasuneko sailburua.

Lehenengo kidea eta kontseiluburuordea: Enrique Fernando Peiró Callizo jauna, Osasuneko sailburuordea.

Bigarren kidea: Miren Lorea Bilbao Artetxe andrea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea.

Hirugarren kidea: José Enrique Corchón Álvarez jauna, Finantza eta Aurrekontu sailburuordea.

Laugarren kidea: Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna, Aurrekontuen zuzendaria.

ERABAKIA:Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

LAUGARRENA. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria kargutik kentzea eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria izendatzea.

Lehenengoa. Luisa Larrauri Ereñozaga andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Giza Baliabideen zuzendari kargutik kentzea, eta izendatu zutenetik egindako lanagatik eskerrak ematea. 2024ko irailaren 4tik aurrera izango ditu ondorioak, egun hori barne, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeak kalterik egin gabe.

Bigarrena. Josune Retegi Ormazabal andrea izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendari. 2024ko irailaren 4tik aurrera izango ditu ondorioak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeak kalterik egin gabe.

ERABAKIA:Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

BOSGARRENA.- Erabaki-proposamena, datuak babesteko ordezkariaren kargua sortzeari eta, hala badagokio, onartzeari buruzkoa.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren datuak babesteko ordezkariaren kargua sortu behar da.

ERABAKIA:Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

SEIGARRENA. - Maria Rosa Pérez Esquerdo andrearen eta Miguel Sánchez Fernández jaunaren Prestakuntza-plan Indibidualak onartzen dituzten ebazpenak Administrazio Kontseiluari jakinaraztea.

Lehenengoa. - Maria Rosa Pérez Esquerdo andrearen Prestakuntza-plan Indibiduala onartu behar da.

Bigarrena. - Miguel Sánchez Fernández jaunaren Prestakuntza-plan Indibiduala onartu behar da.

ERABAKIA:Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

ZAZPIGARRENA. - Osakidetzako zuzendari nagusiaren 1115/2024 Ebazpenaren eta 7/2024 eta 8/2024 Jarraibideen aurka jarritako Giza Baliabideen Plangintza eta Kudeaketako Zuzendariordetzaren gora jotzeko errekurtsoei buruzko erabaki-proposamenak, eta, hala badagokio, horiek onartzea.

Lehenengoa. - Gora jotzeko errekurtsua aurkeztu da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1115/2024 Ebazpenaren aurka, eta ezetsi egin da.

Bigarrena. - Gora jotzeko errekurtsua aurkeztu da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 7/2024 Instrukzioaren aurka. Deklaratu da errekurtsuan prozeduraren xedea galdu dela.

Hirugarrena. - Gora jotzeko errekurtsua aurkeztu da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 8/2024 Instrukzioaren aurka, eta ezetsi egin da.

ERABAKIA:Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

ZORTZIGARRENA. - Osakidetzako zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2024 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsuari buruzko erabaki-proposamena egitea, eta, hala badagokio, hura onartzea. Ebazpen horren bidez atzera botatzen da

Administrazio Kontseiluak 2024ko uztailaren 11n hartutako Erabakia, lanbide-garapenaren maila aitortzeari buruzkoa.

Atzera bota behar da Administrazio Kontseiluaren 2024ko uztailaren 11ren Erabakia, Osakidetza zuzendari nagusiaren 19ko 1184/2024 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekursoari buruzkoa, lanbide-garapenaren maila aitortuz.

ERABAKIA:Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

BEDERATZIGARRENA. - Erabaki-proposamenak, Hautaketako eta Horniketako Zuzendariordetzaren gora jotzeko errekurso batzuei buruzkoak, izangaien behin betiko zerrendari, destinoen esleipenari eta 2018-2019ko EPEko esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzeari buruzkoak, eta, hala badagokio, onartzea.

Lehenengoa. - Gora jotzeko errekurtoa aurkeztu da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 527/2024 Ebazpenaren aurka, eta ezetsi egin da.

Bigarrena. - Gora jotzeko errekurtoa aurkeztu da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 13ko 1082/2024 Ebazpenaren aurka, eta ezetsi egin da.

Hirugarrena. - Gora jotzeko errekurtoa aurkeztu da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 14ko 661/2024 Ebazpenaren aurka, eta ezetsi egin da.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

HAMARGARRENA. - Erabaki-proposamenak egitea Lekualdatze-lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren 2023ko martxoko zikloaren behin betiko esleipenen Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekursoari buruz, eta, hala badagokio, onartzea.

Gora jotzeko hamabi errekurto aurkeztu dira Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 22ko 850/2024 Ebazpenaren aurka, zeinaren bidez lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko zikloan deitutako destinoen

behin betiko esleipena egin baitzen, hainbat kategoriari zegokienez. Errekurtso horietatik hamaika ezetsi egin dira, eta bat baietsi.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

HAMAIKAGARRENA. – Informazioa eta galde-eskeak.

Sailburuak galdera bat egin dio Aholkularitza Juridikoari, hautaketa-prozesuetan desgaitasun-txandaren bidez sartzen diren izangaien egoerari buruz, bai eta hautagai bakoitzaren desgaitasunaren arabera lanpostu desberdinak eskuratzeko aukerari buruz ere.

Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, 2024ko irailaren 3ko 12:35ean.



Izpta.- Maiteder Mielgo Rubio

Idazkaria



Izpta.- Alberto Martínez Ruiz

Kontseiluburua

Osasun Sailburua

O.E.